

## BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

- Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?

Lehenik, aplikazioa sortu ondoren, inguruko hainbat nekazariekin jarriko gara harremanetan. Hauei aplikazioaren berri emango zaie eta haien interesen berri ere emango digute. Hau izanda, hitzaldi bat antolatuko da, non proiektu honi buruz hitz egingo dugun. Bertan aplikazioak nola funtzionatuko duen eta beste hainbat beharrezko informazio helaraziko da, jendeari aplikazioan saltzen hasteko interesa piztu dadin. Batetik, harremanetan jarri garen nekazari hauei emango diegu hitzaldi honen berri. Bestetik, ezagutzen ez ditugun nekazariak ere hitzaldiaz ohartu daitezzen, sare sozialetan argitaratuko ditugu hitzaldiaren ordu, leku eta zehaztapenak. Honetaz gain, kaleetan eta eraikin ezberdin barruetan ere, poster eta kartel ezberdinen bitartez, ezagutzen ez ditugun nekazariak ere honen berri emango diegu. Hitzaldi honetarako materialak, lekua eta ordua zehaztu beharko liratekeen, taldeko bakoitzaren baliabide ezberdinak kontuan harturik. Hitzaldian, haiei buruzko datuak hartuko dira, eta aplikazioan berrikuntzak dauden bakoitzean, beraiek emandako email edo telefono zenbakira bidaliko zaie informazioa.



Behin hitzaldia emanda, eta nekazariak ere konbentziturik, gure aplikazioa nekazarien bezeroei helaraztea izango da gure eginbeharra. Honetarako ere antzeko baliabideak erabiliko ditugu. Hitzaldi bat antolatuko dugu, kasu honetan online izango dena. Gure esperoan, jende asko animatuko da aplikazio honetan gauzak erostera, eta horregatik erosoagoa izango da guztiontzat, presentzialki izan beharrean, online moduan egitea. Bezeroei hitzaldi honen berri emateko, sare sozialak eta posterrak ere erabiliko ditugu. Bestetik, eskoletan hitzaldi ezberdinak emateko aukera eman diezaguten eskatuko dugu. Hala bertako gurasoei ere jakinarazteko aplikazio honi buruz.

Honela mundu guztia jakinaraziko genuke aplikazio honi eta honen abantaileri buruz.